

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Turismo Gastronomikoaren I. Nazioarteko Biltzarra otsailaren 22 eta 23an ospatuko da Baluarten

*Turismo-merkatuaren hobi honen erronka eta aukerak aztertuko dituzte bederatzi herrialdetako adituek*

Asteartea, 2018.eko otsailak 13

Turismo  
Gastronomikoaren I.  
Nazioarteko Biltzarrak  
suspertzen ari den sektore  
honetako joera nagusiak jasoko  
ditu datorren astean, bederatzi



herrialde desberdinetatik datozen profesionalen artean esperientziak elkartrukatzeko espazio bat sortuz. Adituek merkatu gastronomikoen ikuskerak eta merkatu horiek turista berriak erakartzeko dauzkaten efektuak izango dituzte aztergai.

Marketin Turistikoko Zerbitzuko zuzendari den Ana Lizarragak eta Biltzarreko zuzendari den Luis Cortésekin aurkeztu dute gaur goizean lehen edizio honen programa, Navartur Azokaren sarrera gisa agertzen dena. Nafarroako Gobernuak eta Events & Holidays enpresak antolatu dute topaketa, eta World Food Travel Association, Reyno Gourmet, Iruñeko Udalaren eta Iruñeko Turismo eta Ostalaritza Elkartearen kolaborazioa izan du.

Turismo Gastronomikoaren Nazioarteko Biltzarrak The business of gastronomy tourism goiburua izango du (Turismo gastronomikoaren negozioa) eta gai horren inguruko gaiak landuko dituzte bertaratuek, horien artean: turismo gastronomikoaren baitako joeren egungo egoera eta azkeneko joerak, teknologiaren eragina edo bidaia-antolatzaileen ikuspuntua.

Gastronomia tradizioaren, kulturaren, bizitzeko moduaren eta lurralde bateko berrikuntzaren elementu definitzaile gisa hartuta, turismoa dinamizatu eta dibertsifikatzeko aukera gisa ere aurkeztzen da ekimen hau. Eta, baita, tokiko garapen ekonomikorako aukera gisa ere, sektore profesional desberdinen inplikazioaren bitartez: lehen sektoreko ekoizpena, ekoizpen horren komertzializazioa merkatuetan edo produktu horiekin sukaldaritzako profesionalek egiten dituzten lanketak.

Gastronomiak helmuga turistiko baten aukeraketa egiteko orduan daukan garrantziak kalitatezko tokiko produktuetan oinarritutako eskaintza baten hazkundera ekarri du, diferentziazioaren eta merkatu propio baten sendotzearen alde eginez.

Turismo Gastronomikoaren I. Nazioarteko Biltzarrak Nafarroak duen potentziala bideratu eta sektoreko aukera eta ikuskera desberdinak aztertu nahi ditu, esperientzia jasoa duten profesionalen bateratze-lanaren bitartez. Nafarroako gastronomiak izaera propioa daukala irizten da, eta tradizioaren eta sukaldaritza berriaren arteko oreka mantentzen duela, kalitatezko produktuei lotuta, nazioarteko sona izateko beste.

Biltzarra, gainera, aukera paregabea izango da tokiko produktuen aniztasuna eta kalitatea erakusteko, negozio-foro izateaz gain. Izan ere, merkatuko aktore zuzenen (B2B izena jasotzen dutenak), turismo gastronomikoan adituak diren bidaia-antolatzaileen eta helmuga gastronomikoetako ordezkarien arteko zuzeneko topaketekin osatuko da biltzarra.

Biltzarreko programari buruzko informazio gehiago jasotzeko eta izen-emateak egiteko [www.gastronomytourism.es](http://www.gastronomytourism.es) webgunea daqo erabilgarri.